



kritiken hemeroteka

7.882 kritika

Honi buruz

Bilaketa

Hasiera

Azken kritikak

- **Epizentroa**
Nerea Loiola Pikaza
Ainhoa Aldazabal Gallastegui
- **Izurdeen aurreko bizitza**
Kirmen Uribe
Asier Urkiza
- **Luminiszentekak**
Igone Mariezkurrena
Fernandez / Irantzu
Pastor Ordoki
Nagore Fernandez
- **Gu gabe ere**
Itziar Ugarte Irizar
Jon Martin-Etxebeste
- **Begiak zabalduko**
zaizkizue
Irati Jimenez
Anjel Lertxundi
- **Totelak**
Fermin Etxegoien
Anjel Lertxundi
- **Infinitua ihi batean**
Irene Vallejo
Anjel Lertxundi
- **Borrokalarari transgeneroak**
Leslie Feinberg
Irati Majuelo
- **Totelak**
Fermin Etxegoien
Ibon Egaña

« [Infinitua ihi bitan](#) | [Kixoteak azpeitiarrarekin topo egin zueneko](#) »

Totelak / **Fermin Etxegoien** / Erein, 2021

Hiztun guztiok gara totelak → Anjel Lertxundi / *Berría*, 2021-12-05

Euskaltzaindiak honela definitzen du *total* hitza: “Mintzatzeko debekua duena; zenbait silaba errepikatuz hitz egiten duena”. Definizioan ageri den *debekua* har bedi *eragozpen* edo *zailtasun* adieretan: euskaldunok totelak gara euskara egiteko ditugun zailtasunengatik (propioak zein exogenoak). Baina har bedi berebat totelak garela mendeetan izan ditugun debekuengatik ere, nahiz ez jakin lexikologoak asmo hori ote zuen.

Totalak du izenburua Fermin Etxegoien azken nobela askotarikoak. *Autokarabana* arrakastatsuko autofikzioaren bidetik, narrazioa eta saiakera batu ditu digresio harmonikoekin berriro. Minbizidun baten istorioa eta kale-musikari baten ezusteko aukera kontatzen dizkigu fikzioak, eta Pío Barojak nobelari emandako definizioaren bidetik (‘denetik kabitzen da nobelaren zakuan’) euskal kulturaren egoerari buruzko apunte eta hausnarketa ezohikoak ematen ditu liburuak, batez ere musikaz (zenbat iradokizun musikaz eta herri musikaz, Ordorika(tedra) nobelaren parte luze bateko protagonista delarik!). Etxegoien ari da euskararen gainean eta euskaldunon trauma linguistikoaz ere, hizkuntzak eragiten digun agonismoaz, lotsaz, beldurra sentitzerainoko segurtasun faltaz, euskal kulturako edozein “sorkuntza esperientzia partikularrek, ejem, izaera politiko-poetikoak har dezakeelako edo ematen ahal zaiolako, modu erraz bezain behartuan”.

Batzuetan gordin, sarri autoironia baliatuz, inoiz ia etsipen kosmikoz, Etxegoien lanak beti ematen du zer pentsatua: “Patuak, neurri handi batean jaiotzez egiten gaitu eder edo itsusi, erakargarri edo nardagarri, berbalapiko edo hitz-total”.

Artxiboa

- Abendua 2021
- Azaroa 2021
- Urria 2021
- Iraila 2021
- Abuztua 2021
- Uztaila 2021
- Ekaina 2021
- Maiatza 2021
- Apirila 2021
- Martxoa 2021
- Otsaila 2021
- Urtarrila 2021

Aurreko urteak ▼

Hedabideak

- Berría (1117)
- Argia (1015)
- El Diario Vasco (954)
- El Correo (813)
- Gara (643)
- Egunkaria (505)

→ **Motx-motxean**
Juan Kruz Igerabide
Karla Fernández de Bengoa
Vázquez

→ **Ihes baten lausoa**
Hasier Larretxea
Jose Luis Padron

→ **Mamu eratortzeko moduak**
Juanjo Olasagarre
Asier Urkiza

→ **Udaberria sutan**
Joxemari Iturralde
Nagore Fernandez

→ **Ez dakit zertaz ari zaren**
Ana Malagon
Paloma Rodriguez-Miñambres



→ Deia (473)

→ Aizu! (185)

→ El País (151)

→ Irunero (122)

→ Zeruko Argia (97)

→ Egin (77)

→ Hegats (62)

→ Besterik (1667)